



EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO LAN-KONTRATUKO LANGILEENTZAKO ERRETIRO PARTZIALERAKO PLANA

1.- Indarraldia

Akordio honetan jasotzen den erretiro partzialaren planak 2026ko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak, gertaera eragilearen data 2030ko urtarrilaren 1a baino lehen duten erretiro-eskaerei dagokienez.

Hala ere, erretiro partziala arautzen duen araudian funtsezko aldaketarik eginez gero, plan hau berrikusi beharko da, ordezkaritza sindikalarekin negoziatu ondoren.

2.- Baldintza orokorrak

Plan honek Euskal Herriko Unibertsitateko lan-kontratudun langileen erretiro partzialerako sarbidea arautzen du, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 215. artikuluaaren bigarren apartatua aurreikusitako baldintzetan.

Erretiro modalitate honetara bildu nahi duten lan-kontratuko langileek erretiro partzialagatikotizaziopeko pentsioa eskuratzeko Gizarte Segurantzaren araudian ezarritako baldintza orokorrak bete beharko dituzte.

Era berean, erakunde kudeatzaile eskudunak ezartzen dituen eskakizunak bete beharko dira erretiro partziala hartu duten langileek sinatu behar duten lanaldi partzialeko kontratuaren lanorduek betetzeari dagokionez.

Lanaldi partzialeko erretiro-modalitatean sartzea borondatezkoa izango da, erretiro partzialeko plan honen aplikazio-eremuan sartutako lan-kontratudun langileek aldez aurretik eskatuta.



3.- Sartzeko betekizunak:

3.1.- Plan honetan araututako erretiro partziala hartzeko baldintza izango da lan-kontratu finkoko langile izatea irakaskuntza-kategorietako batean, eta behin betiko betetzea UPV/EHUko lanpostua, zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran edo plaza-erreserba dakarren beste egoera batean, edo langile egonkorra izatea, UPV/EHU 6 urtez benetan lan eginda.

3.2.- Erretiro partziala hartu aurreko azken urteetan, UPV/EHU gutxienez sei urteko antzintasuna egiaztatzea.

3.3.- Lanaldi osorako kontratatuta egotea eta lanaldi partzialeko aldi baterako kontratu bat formalizatzea. Aldi berean, Administrazioak txanda-kontratu bat formalizatu beharko du hirugarren pertsona batekin.

3.4.- Gertaera eragilearen egunean, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 205.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera kasu bakoitzean aplikatzekoa den adina baino gehienez hiru urte gutxiagoko adina beteta izatea.



3.5.- Hogeita hamahiru urteko kotizazio-aldia egiaztatzea. Ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko interesdunari aplika dakizkiokeen erretiro-adinaren hobariak edo aurrerapenak, ezta aparteko ordainsariei dagokien zati proportzionala ere.

Ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonen kasuan, aurreko lerrokadan adierazitako 33 urteko kotizazio-aldia hogeita bost urtera murriztuko da.

Kotizazio-aldia zehazteko ondorioetarako soilik, nahitaezko soldadutzan, ordezeko gizarte-zerbitzuan edo emakumeen nahitaezko gizarte-zerbitzuan emandako aldia soilik zenbatuko da, gehienez ere urtebeteko mugarekin. Era berean, erretiroa hartzeko legeko adina zehazteko soilik, erretiro-adina izango da langileari legokiokeen adina, baldin eta kotizatzen jarraitu izan balu erretiro partzialaren gertaera eragilearen egunetik GSLOren 205.1.a) artikuluan ezarritakoa aplikatuzet kasu bakoitzean ondorioztatzen den legeko erretiro-adina bete arte.

Kotizazio-aldiak zenbatzeko, aldi osoak hartuko dira kontuan, eta horren frakzioa ez da aldi batekin parekatuko.

4.- Baliatzeko baldintzak:

4.1.- Erretiro mota hau hartzea erabakitzen duten langileek beren lanaldia murriztuko dute ondoren zehazten den ehunekoan:

a) Erretiro partziala hartzeko unean langileari 2 urte baino gehiago falta bazaizkio Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 205.1a) artikuluan aurreikusitako ohiko erretiro-adinera iristeko, lanaldia % 33 murriztuko da erretiro partziala hartzen duen unetik erretiro-adin aurreikusia 2 urte baino gutxiago izan arte, eta une horretatik aurrera % 75 murriztuko da ohiko erretiroa hartzen duen arte.

b) Erretiro partziala hartzeko unean langileari 2 urte edo gutxiago falta bazaizkio Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 205.1a) artikuluan aurreikusitako erretiro-adin arruntera iristeko, lanaldia % 75 murriztuko da erretiro partziala hartzen duen unetik erretiro arruntera iritsi arte.

Ehuneko horiek lanaldi oso konparagarria duen langile baten lanaldiari dagozkio.

4.2- Erretiro partziala hartzen duten langileek beren zerbitzuak emateko aukera izango dute:

a) Lanaldi partzialean, erretiro partziala hartzen duen unetik erretiro arrunta hartu arte. (Lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuan ezarritako ehunekoan)

b) Lanaldi osoan, lanaldi partzialeko lan-kontratuari dagozkion lanordu guztiak aldi bakar batean bilduz.

4.3.- Erretiro-modalitate hori aukeratzen duten langileek lanaldi partzialeko aldi baterako kontratu bat sinatuko dute, eskaera egiten duten urtean erreferentziako lanaldi osoaren % 25ekoa (bi urteko aurretiaz bada eta %67koa lehen urtean, eta ondorengo bietan %25 hiru urte aurretik bada).

Erretiro partziala hartu duen langilearen lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuaren hasiera-data bat etorriko da errelebo-hartzailearen kontratuaren hasiera-datarekin.

Lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuaren amaiera-data bat etorriko da ohiko erretiroa hartzen den egunarekin; erretiro hori, nolanahi ere, erretiroa hartzeko ohiko adinarekin gertatuko da, une bakoitzean eskatzen diren kotizazio-baldintzak kontuan hartuta Gizarte Segurantzaren araudian ezarritakoaren arabera.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 205.1 a) artikuluan ezarritako ohiko erretirorako adinera iristeko bi urte baino gehiago kenduta erretiro partziala hartzen duten langileentzat, lanaldiaren ehunekoa % 67ekoa izango da erretiro partziala hartzen den egunetik erretiro-adin aurreikusia ken 2 urtera arte; une horretan kontratuan adierazitako lanaldiaren ehunekoa % 25ekoa izango da erretiro arrunta hartu arte.

4.4.- Erretiro partziala hartu duten langileek zerbitzuak emateko aukeratu duten modalitatea edozein dela ere, administrazioak lanaldiaren % 25ari dagozkion ordainsariak ordainduko ditu lanaldi partzialeko kontratua indarrean dagoen bitartean. Era berean, alta-egoeran egongo da Gizarte Segurantzaren ondorioetarako, erretiro arruntaren datara arte.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 205.1 a) artikuluan ezarritako ohiko erretirorako adinera iristeko bi urte baino gehiago kenduta erretiro partziala hartzen duten langileentzat, administrazioak lanaldiaren % 67ari dagozkion ordainsariak ordainduko ditu, erretiro partziala hartzen duen egunetik erretiro-adin aurreikusia ken 2 urtera arte. Orduan, lanaldiaren % 25ari dagozkion ordainsariak ordainduko ditu, ohiko erretiroa hartu arte.

4.5.- Lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuari dagozkion ordainsariak bateragarriak izango dira erretiro partzialagatiko pentsio gisa Gizarte Segurantzaren araudiak ordezkaturako langileei aitortzen dien pentsioarekin.

4.6.- Erretiro partziala hartu ahal izateko, aldi berean txanda-kontratu bat hitzartu beharko da, une bakoitzean indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

Plan hau onartzen den egunean indarrean dagoen araudia kontuan hartuta, txanda-kontratua lanaldi osokoa eta mugagabea izango da, eta, horretarako, lanpostua bete beharko da, administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen sarbidea arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera, betiere berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioak errespetatuz.

Txanda-kontratua ordezkaturako langileak betetzen zuen lanpostu berean edo beste lanpostu batean zerbitzuak emateko itundu ahal izango da, administrazioaren antolaketa-beharren arabera.

5.- Prozedura

Erretiro partziala hartu nahi duten langileek idatziz jakinarazi beharko dute, dagozkien deialdietan adierazitako aurrerapenarekin. Horretarako ezarriko den eskaera-idazkian, zerbitzuak emateko modalitatea adierazi beharko da. Era berean, eskaerarekin batera, erretiro partziala hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da. Dokumentazio hori irakasle eta ikertzaile lan-kontratudunentzat horretarako gaitzen diren deialdietan zehaztuko da.

Irakasle eta ikertzaileen kasuan, bi deialdi egingo dira urtero, erretiro partziala hartu nahi duten pertsonen horren berri eman dezaten hurrengo urteetan.



6.- Irakaskuntza-ahalmenaren murrizketarekiko eta erretiro bidea errazteko bestelako neurrien bateragarritasuna:

Langile horiek erretiroa hartzeko neurri bereziei buruz UPV/EHUko irakasle eta ikertzaile lan-kontratudunen negoziazio-mahaiak 2024ko ekainaren 10ean hartutako Akordioaren hirugarren apartatuan xedatutakoaren arabera, akordio horretan aurreikusitako irakaskuntza-ahalmenaren murrizketak eta genero arrakalagatiko baimen berezia bateragarriak izango dira erretiro partzialarekin.

Murrizketa-taulak erretiro partziala hartzeko baldintza berrietara egokitzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- A aukeraren kasuan - MURRIZKETAK METATU GABE-: erretiro partzialari dagozkion ikasturteetan, irakasteko ahalmenaren ehunekoa erretiro partziala hartzeko adinaren arabera izango da (ohiko erretirorako adina ken 3 urte, % 67; ohiko erretirorako adina ken 2 urte, % 25).
- B aukera kasuan- MURRIZKETAK METATUTA: Irakaskuntza-ahalmenaren murrizketa erretiro arruntaren dataren aurreko ikasturteetan baliatuko da, erretiro partziala hartzen duen langileak irakaskuntza-ahalmenaren % 100eko murrizketa izan dezan erretiro arrunta hartzen duen ikasturtean, eta horrela hurrenez hurren, harik eta irakaskuntza-ahalmenaren murrizketa-ehunekoa agortu arte.


Urte bakoitzari dagokion murrizketa-ehunekoa tutoretza-orduei ere aplikatuko zaie.

Murrizketak eskatzaileari egokituko zaizkio, eta modu partzialean erretiratu ahal izango dira legezko baldintzak betetzen dituen datan, legez ezarritako aurrerapenarekin eskatzen bada, irakaskuntza-lana antolatzeko.

7- Jarraipen batzordea

Batzorde paritario bat eratuko da hitzarmena sinatu duten sindikatuen eta Administrazioaren artean. Batzordea urtean behin bilduko da gutxienez, itundutakoaren jarraipena egin, interpretatu eta zuzen aplikatzeko.

Leioa 2025eko irailaren 24a



ELA

